

GIZABIDEZKO EKINTZEN GIDA

Bermeoko Udalak sentsibilizazio kanpaina bat ipini du martxan eta kanpaina honek bizikidetzako udal araudiaren hiru arlo garrantzitsu jorratuko ditu: jokabideak, hiri-ingurunea eta animaliak edukitzea.

Sentsibilizazio kanpaina honetarako udalak pertsona bi kontratatu ditu. Pertsona hauek herrian zehar ibiliko dira bizikidetzako udal araudia betetzen dela ziurtatzeko eta honako arlo hauetan herritarrak sentsibilizatzeke:

Jokabideak:

- **Pertsonenak:** zigarro-puntak, plastikoak... behegainera botatzea
- **Bizikidetzari buruzkoak:** zarakak, istiluak, aldarriak...
- **Ekintzak:** barbakoak, grafitiak...

Hiri-ingurunea:

- **Ingurumenaren degradazioa:** altzariak kalean uztea horretarako eguna, ordua eta lekua kontuan eduki barik...
- **Leku publikoaren degradazioa:** zikinkeria, sastarrak lekuz kanpo...
- **Hiri-altzarien degradazioa:** altzariak apurtuta, luminariak apurtuta ...

Animaliak edukitzea:

- **Animalien jabeak:** zelan atera animaliak kalera euren arriskugarritasuna kontuan izanda
- **Animalien jabeak eta gainerako herritarrekin harremanak:** gorotzak batzea eta nora bota, txiza...

Udalak kanpaina honekin duen helburua da herritarrak ingurumen eta bizkidetza portaera hobekuntzetan parte-hartzea, eta baita udal- garbitasun zerbitzuaren kostuak eragin positiboa izatea ere, hondakin-mota guztien birziklatzean zein udalaren beraren irudian ere.

Badakizu zenbat diru bideratuko duen udalak garbitasunaren zerbitzura 2020an? 2,7 milioi eurotik gora.

Zure laguntza eskatzen dizugu proiektu honek eragin POSITIBOA eduki dezan eta horretarako ekintza errez batzuk proposatzen dizkizugu:



JOKABIDEAK

-Zigarro-puntak: amatatu eta gero, bota itzazu sastar-ontzietan. Plastikoaren antzeko materialarekin eginda daude eta ez dira erraz deskonposatzen. Badakizu zigarro-punta batek beruna, artsenikoa eta kadmioa dituela? Ingurumen-arazoa da, bakoitzak 50 litro ur geza eta 8 eta 10 litro ur gaziraino kutxa dezake eta gainera arazoak sortzen ditu ur-arazketetan.

-Umeen parkeak: edonork daki sastarrak kalean botatzea txarto dagoela, baina umeak dauden parke baten botatzea oraindik txarragoa da. Esparru hauek umeek olgetako dira, ez arriskuan egon daitezten. Sortzen dituzun hondakin guztiak jaso eta birzikla itzazu.



ANIMALIAK EDUKITZEA

Zure txakurra, zure ardura.

Txakurren gorotzak ez dira lorategietarako ez espaloietarako ongarriak. Badakizu ukituz gero osasun-arazoak eragin ditzaketela? Biodegradagarria den poltsa batekin batzea zuretzat ekintza txikia da, baina gauza handia da kale eta espaloietan gorotzik zapaldu barik ibili ahal izatea.



HIRI-INGURUNEA

-Kartoia edukiontzi barruan. Badakizu papera eta kartoia zikin dagoenean zailagoa dela birziklatzea? Kartoia tolestuta eta edukiontzi barruan egon behar da, horrela beste hondakin batzuetatik banatzeko egindako ahalegina ez dadin alferrikakoa izan.

-Hondakin mota bakoitza bere edukiontzian: hondakin bakoitzak bere edukiontzi zehatza du, baina ez da inola ere utzi behar hondarrik, trasterik edo tresnarik edukiontzien ondoan edo paperontzien ondoan, zikinkeria guneak sortzen dira-eta.

-Zer gertatzen da birziklatu nahi duzun gauzak ez badakizu non utzi behar dituzun edo ez badira edukiontzian sartzen? Adibidez altzariak eta tresnak batzeko zerbitzuak egun eta ordu-tegi jakina dauka, baina puntu garbiei buruz informazio gehiago behar baduzu eta birziklatzeko orduan zalantzarik badaukazu, udaleko 010 telefono zenbakira deitu ahal duzu.

Elkarlan apur batekin, oso erraz lortuko dugu Bermeoko hondakinak dagokien tokian egotea.

BERMEO danon etxea GARBIA

GUÍA DE ACCIONES CÍVICAS



